



Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

ZORIONTSUAK AL ZARETE PANTAILAZ BESTALDEKO BIZTANLEAK?

Zoriontsuak al zarete pantailaz bestaldeko biztanleak? Sekula izaten al duzue hotzik edo bero-rik? Noizbait galdu al duzue aterkia? Zenbat galtzerdi pare janzten dituzue neguan? Txarangako doinuekin pizten al zarete? Ileordearekin adiskidetzen al zarete egunak eta gauak zentzua galtzen duten une magiko horretan? Kroketa gustatzen al zaizkizue? Eta kaleko lurrak azkenerako hartzen duen jite lirdingatsu hori zapaten zolan sumatzen duzuenean, zer sentitzen duzue? Izerdirik botatzen al duzue? Eta, malkorik? Aurpegiko margoa maindiretan garbitzen al duzue?

Esan, zoriontsuak al zarete pantailaz bestaldeko biztanleak? amagoia.mujika@gaur8.info